



Psicopatología basada en la relación: por una Psicopatología útil para los servicios comunitarios y para la comunicación inter-servicios



Abu. 19 - Abu. 20 2019

Kod. B04-19

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2019

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Abu. 19 - Abu. 20 2019

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Gaztelera

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Eromena, neurosia, normaltasuna... nola ulertzen dira gaur egun? Nola mantendu harremana eta elkartasun pertsonal eta soziala psikiatria eta psikopatologia klasikoek termino horiekin sailkatzen zituzten patologia pairatzen dituzten pertsonekin?

Gaur egun, psikopatologia bidegurutze batean dago. Hainbat mendez diziplina zientifiko gisa garatu ondoren, izugarri zabaldu da haren aplikazio eremua. Bilakaera hori bera, paradoxikoa bada ere, diziplina inpliosiora eman dezakeen mehatxua ere bada. TDAH, TEA, TLP, depresioa, eskizofrenia... oinarritzko kontzeptuak dira psikopatologia klasikoan eta, aldi berean, haren krisi teoriko eta epistemologiko larriaren erakusgarri ere badira. Kontzeptu horiek eta beste batzuk... ohiko moduan ulertu behar ditugu edo pentsa dezakegu giza sufrimendu psikologikoa eta psikosoziala kontzeptualizatzeko beste modu batzuetan? Badago nahikoa oinarririk garatzeko pertsonen arteko harremanetan, emozioetan, komunitatean eta elkartasunean oinarritutako psikopatologia bat?

Ikastaro honetan, saiatuko gara psikopatologia aurkeztzen gure ustez komunitate zerbitzuentzat eta komunitate arretarentzat erabilgarriagoa den ikuspegi batetik. Horrekin batera, zerbitzuen arteko komunikazioa eta komunitatearekikoa erraztuko dituen psikopatologia eredu bat, behar ez diren profesionalismoak eta medikalizazioak saihestuta, ahal den neurrian. Psikopatologia psikologia ez den alor bat dela aldarrikatzen duen ideiatik abiatuko den eredu bat. "Patologikoak", "anomaloak" edo "gaixoak" deitzen diren jokabideak eta adimen errepresentazioak honako hauxe direla dioena: norbanakoez, familiek eta taldeek egoera zailetan bizirik irauteko egiten dituzten moldatze ahaleginen desbiderapen kaltegarriak. Azken batean, erlazio modu, eredu edo jarraibide dramatizatuak, beldurtuak edo arrazionalizatzailerak oinarri dira antolamendu psiko(pato)logiko histrionikoentzat, fobiko-ebitatiboentzat edo obsesibo-kontrolatzaileentzat. Erlazio modu emozionalizatu, intrusibo, eragile eta jazarriak bezala, antolamendu melankoliko-maniakoen, perbertsoen, inkontinenteen edo paranoideen oinarria dira.

Hori dela eta, lehenengo modulu honetan, aztergai izango dugu "*Psikopatologia orokorra*", eta diziplinaren birplanteamendu global horretarako elementu kontzeptualei eta zientifikoei erreparatuko diegu: haren xedea, haren oinarritzko printzipioak eta haren oinarria garapen interaktiboan edo erlazionalean. Halaber, saiatuko gara azaltzen sistema emozionalek garapen horretan duten garrantzia, baita halabeharrezko inbrikazio bio-psiko-soziala ere, gaur egun epigenetikaraino garatua. Azkenik, saiatuko gara ere oinarri batzuk bateratzen "erlazioan oinarritutako psikopatologia" modu askotarikoentzat, eta etikarekin, filosofiarekin, kulturarekin eta beste psikopatologia batzuekin duten loturarentzat, baina arreta jarritz osasunaren psikologia, psikopatologia eta psikiatria eredu batzuen eta besteen ondorio asistentzial eta pragmatikoetan (larrietan).

Helburuak

Gogoeta egiten laguntzea egungo psikopatologia eta psikiatriak pertsonak sailkatzeko dituzten oinarri teorikoei eta haien ondorio kliniko eta praktikoei buruz.

Gogoeta egitea horretarako ohiko modua **-psikopatologia gainartzailea-** modurik fidagarriena, egokiena, erabilgarriena eta solidarioena ote den.

Ideiak, gogoetak eta kontzeptuak ematea "psikopatologia" eta "osasunaren psikologia" eredu alternatiboek eta haien aplikazio kliniko eta praktikoei buruz.

Datuak eta ebidentziak laburbiltzea, gaur egungo psikopatologia korronteen barnean orientatzeko.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2019-08-19

09:00 - 09:15	Entrega de documentación
09:15 - 10:30	“1. Psicopatología biocomercial y psicopatología basada en la relación” Jorge L. Tizón García URLL
10:30 - 11:30	“2. Un breve apunte sobre la historia de la Psicopatología: ¿Disciplina psicológica o médica?” Jorge L. Tizón García URLL
11:30 - 12:00	Atsedena
12:00 - 13:00	“3. Por una definición relacional y ecológica de las “conductas y representaciones humanas anómalas”” Jorge L. Tizón García URLL
13:00 - 14:00	“4. Ética y Psicopatología” Jorge L. Tizón García URLL

2019-08-20

09:00 - 10:30	“5. Conceptos fundamentales: Psico(pato)logía en el desarrollo; ansiedades, sistemas emocionales y psicopatología; duelo, procesos de duelo y trauma” Jorge L. Tizón García URLL
10:30 - 11:30	“6. Apartados, componentes o factores de cada organización psicopatológica de la relación” Jorge L. Tizón García URLL
11:30 - 12:00	Atsedena
12:00 - 13:15	“7. Repercusiones teóricas, ideológicas, asistenciales y prácticas de esos replanteamientos” Jorge L. Tizón García URLL
13:15 - 14:00	“Discusión final y síntesis” Jorge L. Tizón García URLL

Zuzendaritza



Jorge L. Tizón García

Universitat Ramon Llull, Psiquiatra y neurólogo, psicólogo y psicoanalista

Doctor en Medicina, psiquiatra, psicoanalista (SEP-IPA), psicólogo y neurólogo. Dirigió durante 22 años la Unidad de Salud Mental de La Verneda-La Mina de Barcelona y fundó y dirigió entre 2005 y 2011, el Equipo de Prevención en Salud Mental y Atención Precoz a los Pacientes en Riesgo de Psicosis". Profesor de la Universidad Ramon Llull (Barcelona). Director de la colección 3P ("Psicopatología y Psicoterapia de las Psicosis"), de la editorial Herder (Barcelona-Berlín). Autor o director de: "Protocolos elementales para la atención primaria a la salud mental", "El Poder del miedo", "¿Bioingeniería o Medicina?", "Entender las psicosis", "Familia y psicosis" y del tratado "Pérdida, pena, duelo: Vivencias, investigación y asistencia". Últimos libros: "Psicopatología del poder" y "Apuntes para una Psicopatología basada en la Relación".

Matrikula prezioak

MATRIKULA	2019-03-01 ARTE	2019-05-31 ARTE	2019-08-19 ARTE
IRIZAR GONBIDATUAK	0 EUR	-	-
OROKORRA	-	60,00 EUR	70,00 EUR
MATRIKULA MURRIZTUA	-	35,00 EUR	-
MATRIKULA EXENTZIOA	-	20,00 EUR	20,00 EUR
MATRIKULA BEREZIA	-	35,00 EUR	-
Gipuzkoa / Bizkaia eta Arabako PSIKOLOGOEN ELKARGO OFIZIALA	-	52,50 EUR	-

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa